

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Vitoria-Gasteizko udalerriko merkataritzaren, zerbitzu pertsonalen eta ostalaritzaren alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntzen deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak. 2024. urtea

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespena ematea erabaki zuen. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

2024ko martxoaren 27an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko udalerriko merkataritzaren, zerbitzu pertsonalen eta ostalaritzaren alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntzen deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak 2024. urterako.

Berriazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten pertsona eta entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Erabaki honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daitezke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, aldez aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daitezke Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hila-beteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori espresuki edo ustez ebatzi arte—. Guztia ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46.1 artikuluetan xedatutakoaren ildotik, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtso baliatzeko aukera.

Deialdiaren berriazko oinarri arautzaileen publikotasunaren inguruan araudietan xedatutakoa betetze aldera, argitara ematen dira:

Arau-esparrua

Deialdi hau dagozkion oinarriek eta honako arau hauek arautuko dute:

— Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorra (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia).

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespena ematea erabaki zuen. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean.

Araudi horren lehen artikulua xedatzen duenez, ordenantzaren "xede da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea".

– Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2022-2024), 2022ko urtarrilaren 21eko Tokiko Gobernu Batzarrean onetsia.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

– Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinaren bitartez dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onetsi baitzen.

– 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearena.

1. oinarria. Dirulaguntzen plan estrategikoa eta dirulaguntza-ildoak

Dirulaguntza-ildoak: Vitoria-Gasteizko udalerriko merkataritzaren, zerbitzu pertsonalen eta ostalaritzaren alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntzak. 2024. urtea.

Laguntza hauek indarrean dagoen Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (2022-2024) aurreikusten dira, zeina 2022ko urtarrilaren 21ean onetsi baitzuen Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek.

Aipatutako planaren arabera, "Vitoria-Gasteizko udalerriko merkataritzaren, ostalaritzaren eta ile-apaindegien alorreko enpresa txikien eraldaketa digitalerako laguntzak" (08_03_v02 fitxa) dirulaguntza-ildoaren barruan daude.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

Vitoria-Gasteizko udalerrian enpresa txikiak ezartzeko nahiz halakoak eraberritu edo modernizatzeko laguntza ekonomikoak norgehiagoka baliatuta emateko baldintzak arautzea dute xede oinarri hauek.

Laguntza ekonomiko hauek itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira, eta konkurrentzia-erregimenean emango dira, hau da, dirulaguntzak emateko aurkeztutako eskabideak alderatuko dira, haien arteko lehentasuna ezartzearen, deialdian alde aurretik ezarritako balioespen-irizpideen arabera, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren III. kapituluarekin eta 19.1 artikuluekin bat etorri (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia).

3. oinarria. Dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak eta gastuak

2023ko martxoaren 11tik deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunera bitartean egiten diren inbertsio-proiektuetarako emango dira dirulaguntzak.

Adierazitako datetan behar bezala jaulkitako fakturen bitartez egiaztatu beharko dira egindako inbertsioak, eta horien ordainketa, berriz, dagozkien ordainagiriak Vitoria-Gasteizko Udalari aurkeztuz (ikus 10. oinarria, nahitaezko agiriak); horretarako epea deialdiaren oinarriak ALHAOn argitaratu eta bi hilabeteren buruan amaituko da. Adierazitako epean behar bezala justifikatuta dauden ordainketek baino ezingo dute jaso dirulaguntza.

Ildo horretatik, ekintza hauetarako jaso ahal izango da dirulaguntza:

A. Lokala eraberritzeko obrak: merkataritza-lokala egokitu, berritu edo handitzeko egiten diren obrak oro, baldin eta azaleraren egokitzapenari edo banaketari eragiten badiote.

Gainera, arkitektura-oztopoak kentzeko eta irisgarritasuna hobetzeko egindako erreformak ere sartzen dira, baita energia aurrezteko eta energia-efizientzia lortzeko neurriak ezartzera bideratutako obrak eta instalazioak ere.

Ekintza horien barruan gastu hauek sartuko dira: proiektua edo aurreproiektua idazteak eragindakoak, obra-zuzendaritzakoak edo, obrak egiteko beharrezkoak izanik, arkitektura- edo ingeniari-tza-zerbitzuek edo baimendutako instalazioek egindakoak. Inpaktu akustikoa murrizteko egindako obrak ere sartuko dira.

Atal honetan dirulaguntza jaso dezaketen jarduketak baloratzeko orduan, obra-lizentziaren eskabidearekin edo obraren erantzukizunpeko adierazpenarekin batera aurkeztutako dokumentazioa kontuan hartu ahal izango da, edo Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren likidaziorako aurkeztutakoa.

Atal honetan dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak baloratzeko orduan, obra-lizentziaren eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioa hartuko da kontuan, edo azken likidaziorako aurkeztutakoa.

B. Bide publikoan edo espazio pribatuetan dauden terraza mahai-aulkidunak (aldi baterako itxitura eduki zein ez) instalatzea, eraberritzea eta egokitzea, alor horretan indarrean dagoen udal araudiaren arabera. Honako hauek joko dira diruz laguntzeko modukotzat:

– Itxiturak instalatzea, edo funtzio hori betetzen duten alboetako elementu mugikorak –gehienez esparruaren hiru alde mugatuz, eta oztopoa identifikatzeko aukera ematen delarik–, hala nola olanak, behin-behineko estalkiak, albo-babesak, manparak, haize-babesak...

– Terrazetarako altzariak (itzalkinak, eguzkitakoak, mahaiak, aulkiak, jardinerak...).

– Kanpoko ekipamendua eta hori instalatzea (argiztapen-sistemak, kanpoko berogailuak...).

Nolanahi ere, baldintza teknikoak eta estetika-arauak bete behar dituzte erositako altzari, ekipamendu eta albo-babesek, Vitoria-Gasteizko ostalaritza establezimendu publikoetako eta horiekin parekatuetako terrazak arautzeko ordenantzak ezarritakoaren arabera. Berogailu, jardinera, albo-babes, itzalkin eta estalkiak eta mahai altu nahiz baxuak (eserlekuak eduki ala ez) erosteari dagokionez, baimenean ageri den kopurua baino ez da lagunduko diruz.

C. Lokalaren ekipamendua: enpresaren aktiboan lehen aldiz sartzen diren aktibo finko berriko elementu hauetan egindako inbertsioak:

– Behar-beharrezkoak diren eta jarduera nagusiarekin zuzeneko zerikusia duten makinak eta altzariak. (Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa, gehienez ere, 15.000,00 eurokoa izango da, BEZa sartu gabe, makineria-elementu bakar batean).

– Klimatizazio ekipoa, aireztapen sistemak eta airea garbitzekoak.

– Errotuluak, olanak eta pertsianak.

– Lokaleko segurtasun-ekipoak, produktuari atxikita ez daudenak (zaintza-kamerak, datu-grabagailuak edo segurtasun-sistema horietako beste biltegitratze-ekipo batzuk...). (Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa, gehienez ere, 6.000,00 eurokoa izango da, BEZa sartu gabe, segurtasun-sistema horietan).

Erosten diren egunetik (fakturan ageri den datatik) gutxienez bi urtez eduki beharko dira enpresan aktibo horiek. Halaber, terrazen egiturarekin, ekipamenduekin eta altzariarekin loturiko inbertsioetarako, nahitaezkoa da indarrean dagoen araudi osoa betetzea, dagokion lizentzia indarrean edukitzea, eta terrazak ere estaldura izatea establezimendu nagusiaren erantzukizun zibilaren eta suteetarako kontratuan. Lizentzia indarrean eduki ezean, ez da kontuan hartuko terrazetan egindako inbertsiorik (egituran, ekipamenduan zein altzarietan izan).

Aurkezten diren proiektuek, diruz laguntzeko modukoak izateko, gutxienez zenbateko hauek izan behar dituzte:

– 2.000,00 euro, EJZko 64, 65, 662.2, 69, 755, 971.3 eta 972 epigrafeetarako.

– 4.000,00 euro, EJZko 67. epigrafean.

– 8.000,00 euro, EJZko 68. epigrafean.

4. oinarria. Dirulaguntzaren xede izango ez direnak

– Erakusteko eta probatzeko gauzak, eta gerora salgai jar daitezkeenak.

– Garraio-kostuak, aseguruak, administrazioaren baimen, lizentzia eta antzekoengatik ordaindu beharreko tasak, edo bestelako zergak edo tributuek.

- Garraio-elementuak, telebistak edo telefono-terminalak erostea.
- Lokala erostea, eskualdatze-eskubideak, alokairu-errentak eta frankizietan sartzeko kanonak.
- Piezak mantendu, konpondu edo aldatzeko gastuak.
- Argiak aldatzea. Diruz lagundu ahal izango da bakarrik instalazio elektrikoa berritzeko eta haren ordez energia-efizientzia altuko elementuak jartzeko inbertsio baten barruan badago.
- Finantza-errentamendu edo antzeko formulen bidez egindako inbertsioak (leasing edo renting).
- Ekipo informatikoak eta horien periferikoak erostea (ordenagailuak, ordenagailu eraman-garriak, saguak, teklatuak, inprimagailuak...), webgune korporatiboa egitea edo gailu mugikorretara egokitzea, kudeaketa-tresnak eta edozein esparrutako softwarea.
- Marketin digitala, enpresaren marketin digitalaren estrategiaren diseinua, enpresaren jarduera nagusiarekin lotutako aplikazioen garapena eta sare sozialen dinamizazioan egindako inbertsioa, posta elektronikoaren bidezko marketina, entzutearen kudeaketa online eta katalogo edo karta digitalak lantzea.
- Kutxa erregistratzaileak eta/edo salgaietarako balantza elektronikoak, saltokiko terminalak, PDAk eta produktuen kodifikaziorako eta irakurketa optikorako sistemak.
- Edozein aktibo edo material erostea edo aparteko aholkularitza-gastuak, unitateko prezioa 50,00 eurotik beherakoa bada, BEZa sartu gabe.
- Diruz lagundu daitezkeen aktiboen deskribapena argi eta garbi identifikatuta ez duten fakturak, edo kodifikazio hutsa dutenak.
- “Lokalaren ekipamendua” zerrendan berariaz dirulaguntzari egotz dakioken gastu gisa ageri ez den beste edozein aktibo erostea.
- Deialdiaren 3. oinarrian espresuki diruz lagundu daitekeen kontzeptutzat jasota ez dagoen beste edozer erostea.
- Diruz lagun daitekeen edozein kontzeptu, baldin eta hornitzaileak dirulaguntza eskatzen duen enpresarekin lotura badu, zirkunstantzia hauek egokitu ezean:
 - Kontratazioa ohiko merkatu-baldintzen arabera egitea (horretarako, hiru aurrekontu aurkeztea eskatuko da).
 - Emaila den organoaren baimena lortzea aldez aurretik, oinarri arautzaileetan finkatzen den moduan.

5. oinarria. Dirulaguntzak jakinarazteko edo argitaratzeko bidea

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) 24.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udalaren webguneko (www.vitoria-gasteiz.org) iragarki-taula digitalean argitaratuko dira. Emandako edo ukatutako dirulaguntzen zerrenda argitaratuko da, pertsona edo enpresa eskatzaileak adierazita, baita emandako dirulaguntzaren zenbatekoa edo ukatzeko arrazoia ere, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak emandako irizpideak kontuan hartuz.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren dirulaguntza eta laguntzak Vitoria-Gasteizko Udalaren Gardentasun Atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak; horretaz gain, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

6. oinarria. Onuradun izateko betekizunak

Merkataritza-jardueraren bat duten pertsona fisiko nahiz juridikoak izan ahalko dira oinarri hauetan arautzen diren laguntzen onuradun, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badi-tuzte dirulaguntza-eskabidea egiten duten unetik:

1. 50 langile baino gutxiago izatea.
2. Urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra 10 milioi euro baino gehiagokoa ez izatea.
3. Aurreko betekizunak betetzen ez dituzten enpresek ehuneko 25etik gorako partaidetza edo lotura ez izatea bertan.
4. Beren merkataritza-jarduera Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatutako lokal batean gauzatzea —menpeko toki-erakundeak barne—, industrialdeetan izan ezik. Ez da beharrezkoa izango eskabidea egiten duten pertsona edo enpresek helbidea Vitoria-Gasteizko udalerrian edukitzea.
5. Lur-arrasean kokatuta egon beharko du lokalak, erakusleihoa eduki, eta jendearentzat irekita egon, ohiko merkataritza-ordutegian. Azoketako nahiz merkataritza-zentro edo -galeria pribatuetako establezimenduak ere aintzat hartu ahalko dira. Ez dira finantzatuko zerbitzuguneetan (gasolindegietan) kokatutako establezimenduak.
6. Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda egon beharko du enpresak, eskabidean adierazitako lokalean/lokaletan sektoreari dagokion merkataritza-jarduera eduki, eta jendearentzat irekita egon, behintzat dirulaguntza eskatzen duenetik.

Enpresaren jarduera nagusia Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren multzo edo epigrafe hauetakoren batekoa izatea:

- 64: establezimendu iraunkorretan egiten den jangaien, edarien eta tabakoaren txikizkako merkataritza (salbuespenak: 646: tabako gaien eta erretzailearentzako artikuluen txikizkako salerosketa, eta 647.5: janari eta edarien horniketa —tabakoa salbu—, makina automatikoen bitartez).
- 65: janariez bestelako produktuen salerosketa, txikizka, establezimendu iraunkorretan (salbuespenak: 652.1: farmaziak: botika eta osasun eta higiene produktuen salerosketa, txikizka; 654.3: airetiko ibilgailuena; 654.4: ibai eta itsasoko ibilgailuena; 654.5: makinena; 654.6: mota guztietako ibilgailuetarako gurpil-azalen, banden edo aire-ganberena, eta 655: erregai eta lubrikatzaileen salerosketa, txikizka).
- 662.2: era guztietako salgaien salerosketa, txikizka.
- 671, 672 eta 673: elikadura-zerbitzua, jatetxe, kafetegi eta tabernetan.
- 676: elikadura-zerbitzua txokolategi, izozki-denda eta hortxata-dendetan.
- 677.9: jatetxeei dagozkien beste elikadura-zerbitzu batzuk:
- 681, 682, 683 eta 684: ostatu-zerbitzuak, hotel, motel, pentsio, ostatu, apopilo-etxe eta apartamentu-hoteletan.
- 691.1: etxeko tresna elektrikoaren konponketa.
- 691.9: beste kontsumo-ondasun batzuk konpontzea, BISG.
- 755: bidaia-agentziak, 755.1 izan ezik.
- 971.3: arropak pasaratzea eta konpontzea.
- 972: ile-apaindegiak eta apaindegiak.

7. Aurreko puntuan adierazitakoa gorabehera, ez zaie dirulaguntzarik emango ekonomia-jarduera bakarra asteburuetako gaueko ostalaritza duten enpresei, salbu eta egiten diren inbertsioen helburua gaueko ostalaritza-jarduera eguneko ostalaritza-jarduera bihurtzea bada. Era berean, ez zaie dirulaguntzarik emango beren jarduera kolektibitateei catering-zerbitzuak eskaintzea duten enpresei.

Bi betekizun horiek ofizios egiaztatu ahal izango ditu Udalak, establezimenduetan behar diren ikuskapenak eginez.

8. Ekonomia Jarduereen gaineko Zergaren bi epigrafe edo gehiagotan alta emanda badago enpresa, onuraduntzat joko da baldin eta jarduera nagusia diruz lagundu daitezkeen multzo edo epigrafeetako baten barruan badago eta egiten dituen ekintzak jarduera horri badagozkio. Ekonomia jarduereen gaineko zergan adierazitako azalaren banaketa kontuan hartuz zehaztuko da jarduera nagusia, hau da, azalera erabilgarririk handiena duen hura joko da jarduera nagusizat.

9. Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak egunean edukitzea, edo zergak ordaindu beharra duen dena delako administrazioarekiko betebeharrak egunean edukitzea. Zergak udal honetan edo foru aldundian ordaintzen ez dituzten banakako enpresaburuak edo enpresek, beste administrazio batzuetan baizik, zergak ordaindu behar dituzten administrazioen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte, Udalak ezin dituelako ofizios egiaztatu.

Banakako enpresaburuak edo enpresak bete beharko du betekizun hori, eta sozietate zibila edo ondasun-erkidegoa bada, sozietateak zein haren bazkide guztiek, industrial zein kapitalistek; eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntzaren tramitazio-prozesu osoan ere bete beharko da betekizun hori, eskabidea aurkezten den unetik bertatik, eta indarrean egon beharko du dirulaguntzaren eskaera tramitatzeko prozesu osoan (ematea, obligazioa onartzea eta ordaintzea).

10. Nolanahi ere, baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak egiten dituztenak ere (elkarteak, lanbide-elkargoak eta abar).

11. Indarrean dagoen araudia zorrotz bete beharko dute enpresa eskatzaileek, hirigintzaren eta arkitekturaren alorrekoa nahiz osasunaren eta higienezaren alorrekoa. Ofizios egiaztatuko da enpresa eskatzaileak arauzko obra-baimena duen, edo, bestela, behar bezala izapidetu duen dagokion erantzukizunpeko aitorpena. Lau hilabeteko epean, obra bukatzen denetik, horren benetako kostuari buruzko aitorpena aurkeztu beharko du enpresak Zerga Ikuskaritzaren Zerbitzuan, eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren likidazioa eskatu.

12. Hala badagokio, indarrean dagoen udal lizentzia izatea aldi baterako itxituradun edo itxiturarik gabeko terraza mahai-aulkidunak eta elementu osagarriak instalatzeko; izan ere, Vitoria-Gasteizko ostalaritza-establezimendu publikoetako eta horiekin parekatutakoetako terrazak arautzeko ordenantzaren arabera (2022ko abuztuaren 8ko ALHAO) baino ez dira diruz lagunduko itxiturak.

7. oinarria. Baliabide ekonomikoak

2024ko ekitaldiko udal aurrekontuko 2024/08.22 4314.489.64 partidaren kontura ("Merkataritza eta ostalaritzarako laguntzak" izenekoak) finantzatzeko dira deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak. Zenbateko hauek banatuko dira, EJZren epigrafeen arabera:

- 225.000,00 euro, EJZko 64, 65, 662.2, 69, 755, 971.3 eta 972 epigrafeetarako.
- 125.000,00 euro, EJZko 67 eta 68 epigrafeetarako.

67 eta 68 epigrafeei esleitutako zenbatekoa agortzen ez bada, soberakina 64, 65, 662.2, 69, 755, 971.3 eta 972 epigrafeei esleitu ahal izango zaie deialdiko aurrekontu-zuzkiduraren zenbateko osoa agortu arte, betiere aurreikuspen hori deialdia ebatzi aurretik egiten bada.

64, 65, 662.2, 69, 755, 971.3 eta 972 epigrafeei esleitutako zenbatekoa agortzen ez bada, soberakina 67 eta 68 epigrafeei esleitu ahal izango zaie deialdiko aurrekontu-zuzkiduraren zenbateko osoa agortu arte, betiere aurreikuspen hori deialdia ebatzi aurretik egiten bada, aurreko paragrafoan zehaztu den bezala.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 58. artikuluan xedatutakoaren haritik, zuzkidura hori handitzerik izango da Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren erabakia dela medio, baldin eta udal sail horrek enpresei zuzendurik egiten dituen deialdietakoren batean soberako krediturik badago, eta interes publiko, ekonomiko eta sozialeko arrazoiak tarteko.

Edonola ere, zenbateko gehigarria erabiltzekotan aski kreditu izan beharko da erabilgarri eta, behar izanez gero, dagokion aurrekontu aldakuntza egin beharko da horretarako, dirulaguntza emateko ebazpenaren aurreko edozein unetan.

8. oinarria. Bestelako laguntza eta dirulaguntzekiko bateragarritasuna

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarri izango dira helburu berarekin Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo entitate publikok edo nazioarteko edozein erakundek emandako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabideekin.

Nolanahi ere, eskuratzen diren dirulaguntzen/laguntzen baturak ezingo du gainditu dena delako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez jasotzen den bestelako edozein dirulaguntza, laguntza edo baliabiderekina batera.

Muga horretara iritsiz gero, deialdi honetan emandako laguntza txikitu egingo da, soberako zenbatekoan.

9. oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkezteko epea eta bideak

9.1. Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik jarriko dira indarrean oinarri hauek; alde aurretik laburpen-iragarkia argitaratuko da Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen.

9.2. Eskabideak aurkezteko epea 15 egun balioduneko izango da, deialdiaren oinarriak ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Deialdi honetako izapideak arintze aldera, helbide elektronikoko bat gaituta eta operatibo eduki beharko dute eskabidea egiten duten pertsonen tramitazioak iraun bitartean, aurkeztutako eskabideak arin eta eraginkortasunez ebazteko oharrak jaso ahal izateko.

9.3. Deialdi honetako 6. oinarrian adierazitako baldintzak betetzen dituen enpresa onuradunak laguntza eskabide bat aurkeztu beharko du berritze- edo egokitze-lanak egin dituen lokaletako bakoitzeko. Lokal bakoitzeko laguntza bakarra eskatu ahal da urtean.

9.4. Bide hauek baliatu ahal dira eskabidea eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko:

– Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa (<https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org>). Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahal da, erregistro elektronikoen bidez. Horretarako, identifikazio-txartel digitala erabili beharko da.

– Aurrez aurre:

Udalaren bulego teknikoetan (Dublang Margolariaren kalea); ordutegia: 8:30 - 14:00 (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo www.vitoria-gasteiz.org webgunean).

– Gizarte-etxeen sareko herritarrei laguntzeko bulegoetan (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo www.vitoria-gasteiz.org webgunean).

Aurrez aurre arreta emateko gunean dokumentazioa orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistemarik erabili gabe.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 89. artikuluan xedatutakoaren arabera (16.4 b artikulua), eskabideak posta-bulegoetan ere aurkeztu ahal dira, erregelamenduz ezartzen den moduan.

9.5. Interesdunek eskabidea aurkezteak oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

9.6. Eskabideak epez kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira.

10. oinarria. Nahitaezko agiriak

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie dirulaguntza-eskabideei:

10.1. Pertsona edo enpresa eskatzaileari dagokionez:

– Eskabide-orria eta zinpeko aitortpena, sinatua: I. eranskina.

Vitoria-Gasteizko Udalarekiko zerga-betebeharrak betetzeari dagokionez, ofizioz begiratu da pertsona edo enpresa eskatzailea egunean dagoen.

Enpresa eskatzaileak espresuki eman ahalko du baimena (I. eranskina) Arabako Foru Aldundiarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko; hala egin ezean, dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko du. Zergak aipatutakoez besteko administrazio batean ordaindu behar badira, eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu dagozkion ziurtagiriak.

– Pertsona fisikoen kasuan: nortasun-agiriaren kopia.

– Pertsona juridikoen kasuan, agiri hauen kopiak:

– IFZ.

– Enpresaren eratzte-eskriturak, eta geroko aldakuntza-eskriturak, enpresaren ordezkariari eta helbide sozialari eragiten badiete.

Eskabidea aurkezteko unean indarrean dauden ordezkari-ahalordeak jasotzen dituzten eskriturak.

– Ordezkaritza-ahalordea duen pertsonaren nortasun-agiria.

– Soldatapeko langilerik ez badu, azken hilabeteko autonomo-ordainketaren agiria eta enpresaburu gisa izena emanda ez egotearen egiaztagiria, edo, bestela, kotizazio-kode bati dagokion lan-bizitzaren txostena.

– Soldatapeko langilerik badu: TC2 edo azken hilabeteko langileen zerrenda izenduna, Gizarte Segurantzak jaulkia.

– Establezimenduari dagokion jabetza-agiri edo alokairu-kontratuaren kopia.

Bai Euskarari ziurtagiriaren kopia edo Bikain ziurtagiria lortu izana argitaratzen den EHAren orriaren kopia, halakorik izanez gero.

– Enpresako langileek halakorik badute, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B1 mailaren edo goragokoaren baliokide den titulu edo ziurtagiri ofizialaren kopia (euskara, ingelesa, frantsesa edo alemana).

10.2. Diruz lagun daitekeen proiektuari dagokionez:

Deskripzio-memoria, III. eranskinaren arabera (enpresaren deskribapena eta proiektuaren memoria kualitatiboa eta kuantitatiboa).

– Birgaitze-obrak egiteko baimena, errentatzaileak emana, lokala alokatzeko kontratuan berariaz adierazten ez bada.

– Aurrekoarekin loturik, Vitoria-Gasteizko Udalak ofizioz egiaztatuko du egindako obrek gaikuntza-titulu juridikorik duten, hau da, obra-lizentzia, lehenengoz erabiltzeko lizentzia, erantzukizunpeko adierazpena, baimena edo derrigorrezkoa den beste edozein.

– Halakorik izanez gero, kontratatutako proiektu teknikoaren kopia, non lokalaren azalaren banaketa islatzen den.

— Enpresak genero-berdintasunaren arloko prestakuntza-ikastaroetan parte hartu badu, memoria horretan zehaztu beharko du, eta bertaratze-ziurtagiria aurkeztu (IFZk edo NANak bat etorri beharko du dirulaguntzaren eskatzailearenarekin). (III. eranskina).

10.3. Inbertsioen justifikazioari eta ordainketari dagokienez:

- Fakturen kopiak, eta III. eranskina betetzea (proiektuaren memoria kuantitatiboa).
- Justifikazio-kontu arruntaren eranskina betetzea (ikus eranskinak).
- Fakturen ordainketa egin izanaren egiaztagiriak:

Ordainketaren banku-egiaztagiriak aurkeztu beharko dira. Ez da onartuko banku-egiaztagiririk baldin eta enpresa eskatzaileak hornitzaileari faktura ordaindu diola argi eta garbi gera dadin nahikoa daturik jasotzen ez badu. Oro har, ez dira egiaztagiri gisa onartuko internet bidez eskuratutakoak, banku-erakundeak balioztatuta edo zigilatuta ez badaude.

Dirutan egindako ordainketen egiaztagiriak edo enpresa hornitzaileen kobrantza-egiaztagiriak onartzeko, ezinbestekoa da ordainketak egiteko unean indarrean dagoen lege-mugatik beherakoa izatea hornitzaile beraren fakturaren edo faktura multzoaren zenbatekoa, guztira, eta haietan ordaintzeko beste modurik ez adieraztea.

Enpresa eskatzaileak ez badu esleitura Gizarte Segurantzaren sistemako inongo erregimeneko kotizazio-konturik, bertako bazkide guztiek egon beharko dute egunean Gizarte Segurantzaren.

11. oinarria. Eskabidearen akatsak zuzentzea

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 20.4 artikulua-ren ildotik (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia), eskabideak deialdian xedatutako betekizunak betetzen ez baditu, 10 eguneko epean hutsak zuzen ditzan errekerituko dio organo eskudunak interesdunari. Halaber, ohartaraziko zaio horrela egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, beti ere, ebazpena eman ondoren, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 9/2015 Legearen 68. artikulua xedatutakoaren arabera.

12. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura

Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan arautzen diren laguntzak kudeatzea. Balioespen-batzorde bat eratuko da horretarako, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendariak —lehendakari arituko da—, Merkataritza Zerbitzuko buruak —idazkari arituko da— eta Enpresen Zerbitzuko buruak osatua.

Eskabideak jaso eta betekizunak betetzen diren egiaztatu ondoren tramitatzea onartzen delarik, txosten teknikoa egingo da, eta, balioespen-batzordeak proposamena aurretik eginda, Tokiko Gobernu Batzarrak ebaztuko ditu eskabideak, horretarako eskumena Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzeko aukera gorabehera.

Dirulaguntzak emateko nahiz ezesteko ebazpenak administrazio-bidea agortuko du, eta horren kontra, aukeran, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da, erabakia hartu duen organoari zuzenduta, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik.

13. oinarria. Ebazteko epea

Ebazteko eta prozeduraren ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik kontatuta.

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 24.5 artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren ildotik, eskabideak ezetsizat jo ahalko dituzte interesdunek, administrazioaren isiltasuna dela medio, baldin eta aurreko paragrafoan adierazitako gehieneko epea igarotzen delarik berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada.

14. oinarria. Onuradunen betebeharrak

Laguntza jasotzen duten enpresa edo pertsonak honako betebeharrak izango dituzte:

1. Udalaren egiaztatze-ekintzen mende jartzea, baita bertako Kontu Hartzaitza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.

2. Udal laguntza honetarako aurkeztutako gastu beretarako bestelako dirulaguntza edo laguntzarik jasoz gero, udalari jakinaraztea.

3. Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Udalari jakinaraztea.

4. Laguntza-eskabidea ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta agiri osagarri oro Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren eskura jartzea.

5. Dirulaguntza eman ondoren, norako eman den, establezimendu horretan bideratzea jarduera ekonomikoa gutxienez bi urtez.

Adierazitako epe hori igaro aurretik ixten bada establezimendua, enpresa onuradunak jakinarazi egin beharko dio udalari, eta emandako dirulaguntzaren zati bat itzuli, jarduera bertan behera geratzen den egunetik bi urteko epe hori (dirulaguntza eman zen egunetik) betetzeko falta den denborarekiko proportzioan. Salbuespen gisa, ez da jasotako dirulaguntza itzultzeko eskatuko, eman zenetik bi urte igaro ez badira ere, titularrak gaixotasun larria duelako edo hil delako ixten bada negozioa.

Jarduera Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatutako beste lokal batera aldatzen bada, baloratu egingo da jardueraren lokal berria diruz lagundutako inbertsioei eusten zaien, eta jarduera lekuz aldatzen den egunean bi urteko jarduera osatzeko falta den denbora-tartea (dirulaguntza eman zen egunetik) kontuan hartuko da. Irizpide horiek oinarri harturik, enpresa onuradunak itzuli beharko duen dirulaguntzaren zati proportzionala kalkulatu da.

15. oinarria. Balioespen-irizpideak

Irizpide hauei jarraituko zaie aurkezten diren proiektuak balioesteko:

BALIOESPEN-IRIZPIDEAK	
1. Inbertsio-proiektua II. eranskinean zehazten diren auzoetan kokatuta egotea (Alde Zaharra, Koroatzea, Angloa, Pilar, Zabalgunea, Lovaina, Zaramaga eta Judimendi)	25 puntu
2. Enpresa eskatzailearen antzintasuna, deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunera arte (EJZko datuen arabera)	
Oro har, enpresa eskatzaileak diruz lagun daitekeen jarduera ekonomiko bera gauzatzen Gasteizko udalerriko merkataritza-lokalen batean etenik gabe emandako denbora balioetsiko da antzintasun gisa	
Jarduera Gasteizen kokatutako lokal batetik beste batera aldatu bada, enpresa edo pertsona eskatzaileak ekonomia jardueren gaineko zergan hasierako lokalean izan duen antzintasuna hartu ahal izango da kontuan, baldin eta jarduerak etenik izan ez badu	
Enpresa eskualdatu bada, lehenago zegoen enpresaren antzintasuna kontuan hartu ahal izango da, baldin eta eskualdatzea behar bezala justifikatzen bada eta hasierako enpresaren jarduerari eutsi bazaio	
Enpresa eskatzailearen forma juridikoa aldatu bada, hasierako enpresaren antzintasuna kontuan hartu ahal izango da, baldin eta enpresa edo pertsona eskatzaileak gutxienez ehuneko 33,3ko partaidetza egiaztatzen badu, enpresa batean nahiz bestean	gehienez 20 puntu
– 10 urtetik gorako antzintasuna	10 puntu
– 20 urtetik gorako antzintasuna	20 puntu
3. Aurkeztutako proiektuaren oroitidazkiaren kalitatea (III. eranskinaren arabera)	gehienez 20 puntu
– Enpresaren izena eta helbidea, dagokion EJZ, enpresaren deskribapena, egindako jarduerarena eta merkataritza-lokalarena	gehienez 2 puntu
– Inbertsio-proiektuaren deskribapen eta justifikazio kualitatiboa. Aintzat hartuko da argi azaltzea inbertsioaren zergatikoa eta zer eragin izan dezakeen enpresak gaur egungo merkatuan lehiakortasunez kokatzean	gehienez 16 puntu
– Inbertsio-proiektuaren deskribapen kuantitatiboa	gehienez 2 puntu

BALIOESPEN-IRIZPIDEAK	
4. 10 langile baino gutxiago dituzten enpresak (langileen azken hilabeteko TC2 agirien edo zerrenda izendunaren arabera)	gehienez 15 puntu
– 5 langile baino gutxiago	15 puntu
– 5 eta 9 langile artean	10 puntu
– 10 langile edo gehiago	0 puntu
5. Merkataritza-sozietateen partaidetzarik ez duten enpresak (eratzte-eskrituren nahiz geroko aldakuntza-eskrituren arabera)	5 puntu
6. Merkataritza-lokalean beste hizkuntzaren batean arreta emateko aukera (euskara, ingelesa, frantsesa, alemana). Enpresak aurkezten dituen ziurtagiri edo titulu ofizialen arabera balioetsiko da	gehienez 5 puntu
– Bai Euskarari edo Bikain ziurtagiria dutela egiaztatzen duten enpresak	5 puntu

16. oinarria. Dirulaguntza kalkulatzea

Aurkeztutako proiektuen balioespena egingo da, aurreko oinarrian adierazitako irizpideen arabera.

Bi puntuazio-zerrenda ezberdin egingo dira, JEZko epigrafeen arabera. Lehenengoa, EJZko 64, 65, 662.2, 69, 755, 971.3 eta 972 zenbakiko epigrafeetarako. Bigarrena, 67 eta 68 zenbakiko epigrafeetarako. Ekonomia jardueren gaineko zergako epigrafe multzo baterako bi zenbatekoetakoren batean kreditu-soberakinik egonez gero, hura erabiliko da EJZko beste epigrafe multzoan diruz laguntzeko moduko izan diren baina diru faltagatik ordaindu ez diren eskabideen zerrendarako.

Guztira 100 puntu jasotzen duten proiektuek diruz lagun daitekeen inbertsioaren ehuneko 40ra arteko dirulaguntza lortu ahal izango dute. Guztira 0 puntu lortzen dutenek, berriz, ehuneko 25era arteko dirulaguntza lortu ahal izango dute. Puntuaziorik handienaren eta gutxienekoaren arteko gainerako proiektuei proportzio lineala aplikatuko zaie dirulaguntzaren ehunekoa kalkulatzeko, eta balorazioan lortutako puntu bakoitzeko ehuneko 0,15 osagarria gehituko da.

Enpresa bakoitzari dagokion laguntzaren gehieneko zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartuko da zer eremutan dagoen kokatuta diruz laguntzekoa den proiektua, eta dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa ezarriko da enpresa EJZko zer epigrafetan dagoen emanda alta:

A) EJZko 64, 65, 662.2, 69, 755, 971.3 eta 972 epigrafeetarako:

– Dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da izan, inolaz ere, 20.000,00 eurotik gorakoa, proiektua Alde Zaharrear, Koroatzean, Angloan, Pilarren, Zabalgunean, Lovainan, Zaramagan edo Judimendin kokatua badago (II. eranskina).

– Dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da izan 15.000,00 eurotik gorakoa, proiektua II. eranskinean jasota ez dagoen lekuren batean kokatua badago.

B) EJZko 67 eta 68 epigrafeetarako:

– Dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da izan, inolaz ere, 10.000,00 eurotik gorakoa, proiektua Alde Zaharrear, Koroatzean, Angloan, Pilarren, Zabalgunean, Lovainan, Zaramagan edo Judimendin kokatua badago (II. eranskina).

– Dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da izan 7.000,00 eurotik gorakoa, proiektua II. eranskinean jasota ez dagoen lekuren batean kokatua badago.

Aurreko oinarrian adierazitako irizpideak aintzat harturik balioetsi eta guztira lortzen dituzten puntuazioen arabera ordenatuko dira dirulaguntza jaso lezaketen proiektuak.

Guztira lortutako puntuazio horren arabera ezartzen den hurrenkerari jarraituz emango dira dirulaguntzak, harik eta erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte.

Berdinketa egokituz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, balioesteko atalean guztira lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko, hurrenkera honen arabera:

1. 15. oinarriko 1. atalean (II. eranskinean zehazten diren zonetakoren batean kokatutako inbertsio-proiektua) lortutako puntuazioa handiagoa izatea.

2. 15. oinarriko 2. atalean (enpresa eskatzailearen antzinatasuna) lortutako puntuazioa handiagoa izatea.

3. Diruz lagun daitekeen inbertsio handiena duen eskabidea.

Baldin eta geratzen den saldoa ez bada aski baliagarri dagoen kreditua agortzen duen dirulaguntza ordaintzeko, geratzen den kreditua ordainduko zaio horri.

17. oinarria. Dirulaguntza ordaintzea

Dena batera ordainduko da laguntza, deialdia ebatzi ondoren, eta 19. oinarrian adierazitako moduan justifikatu ondoren.

Banku-transferentziaren bitartez ordainduko da dirulaguntza, pertsona edo entitate onuradunak eskabidean horretarako adierazten duen kontu korrontean.

Ezingo da dirulaguntza ordaindu harik eta pertsona onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, edo zordun gertatzen bada, dirua itzultzea bidezkoa dela ebatzi delako.

Era berean, ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu pertsona onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu.

18. oinarria. Dirulaguntzak aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen dituen funtsezko edozein aldatetak ebazpena aldatzea eragin dezake, betiere hirugarren baten eskubideak kaltetzen ez badira, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak —Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen du— 64. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzak 25.1 artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) xedatutakoaren arabera.

19. oinarria. Justifikatzeko epea eta modua

Onuradunak emandako dirulaguntza justifikatu beharko du, egindako inbertsio-proiektuei dagozkien fakturak aurkeztuta. Faktura horiek 2023ko martxoaren 11tik deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunera arte behar bezala emandakoak izan beharko dute, eta ordainketa egiaztatzeko dagozkion ordainketa-egiaztagiria aurkeztu beharko zaizkio Vitoria-Gasteizko Udalari (ikus 10. oinarria), deialdi honen oinarriak ALHAOn argitaratzen diren egunetik bi hilabete naturaleko epean. Adierazitako epean behar bezala justifikatuta dauden ordainketek baino ezingo dute jaso dirulaguntza.

Justifikazioa justifikazio-kontu arruntaren bidez egingo da, non, gutxienez eta oro har, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 33. artikuluan zerrendatutako dokumentuak jasoko baitira. Horretarako, justifikazio-kontu arruntaren eranskina bete beharko da (ikus eranskinak).

Ordainketa-egiaztagiria aurkezteko epea deialdiaren oinarriak ALHAOn argitaratu eta bi hilabeteren buruan amaituko da.

20. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea

Vitoria-Gasteizko Udalak, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren bitartez, emandako laguntzak aurreikusitako xedeetara bideratzen direla bermatzeko beharrezko diren kontrol- eta ebaluazio-ekintzak egin ahalko ditu, eta eskatzen dien

informazio osagarri guztia eman beharko diote pertsona onuradunek. Horretaz gain, Udaleko Kontu Hartzaitza Nagusiaren eskumena da Vitoria-Gasteizko Udalak emandako dirulaguntzen finantza-kontrola egitea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

21. oinarria. Dirulaguntza galtzea, laguntzak itzultzea, eta horretarako prozedura

Deialdi honetan adierazten diren betebeharrak ez betetzea, ez justifikatzea edo behar adina ez justifikatzea laguntza itzularazteko arrazoi izango da, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Oinarri hauetan jasotako kasuez gain, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 40. artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) adierazten diren kasuetan itzuli beharko dira jasotako zenbatekoak, eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesak eskatuko dira, edo zordunak itzulketa sartzen duen egunera artekoak, hura baino lehenagokoa bada.

Halaber, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da itzultzeko kausei, preskripzioari, itzultzeko betebeharra duten pertsoneri eta itzulketa-prozedurari dagokienez.

22. oinarria. Datu pertsonalen babesa

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera egingo da datu pertsonalen tratamendua, orobat aintzat hartuz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua, datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetze aldera, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailaren jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela; Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek. Horien gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero —norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, Vitoria-Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko da.

23. oinarria. Berdintasun-klausulak

Entitate onuradunak Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko 4/2005 Legean xedatutakoa bete beharko du. Era berean, errespetatu egin beharko ditu transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko otsailaren 15eko 14/2024 Legea, 2024ko martxoaren 1etik indarrean dagoena, eta Yogyakartako printzipioak: giza eskubideen nazioarteko legedia sexu-orientazioari eta genero-identitateari dagozkienetan aplikatzeari buruzko printzipioak.

Horrela, giza eskubideen alorreko legedia eta dokumentazioa errespetatzeaz gain, pertsona onuradunaren proiektuak bat egingo du Vitoria-Gasteizko Udalak bultzatzen dituen genero berdintasuneko politikekin.

Hori dela eta, konpromiso hauek hartzen ditu:

— Genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala txertatzeko konpromisoa, herritarren egoera eta premia desberdinak sistematikoki kontuan hartuz; generoaren, klase sozialaren, jatorri kulturalaren, administrazio-egoeraren, adinaren edo dibertsitate funtzionalaren arabera desberdintasunak agerian uztera edo arintzera bideratutako helburu eta jarduketa espezifikoak txertatuz, eta ekintza positiboak aurreikusiz.

— Generoa kontuan hartzerakoan, pertsona guztiak emakume edo gizon heterosexualak direla ziurtzat ez jotzeko konpromisoa —zisheteronormatibitatea—, ezta familia guztiak nuklearrak direla ere. Orientazio sexuala eta genero-identitatea tratatzerakoan, patologizazioa, biktimismoa eta pinkwashinga saihesteko konpromisoa.

— Egiten dituzten estatistika, inkesta eta datu-bilketetan sexua/generoa aldagaia sistematikoki txertatzeko konpromisoa —emakumea/gizona/ez-binarioa edo entitateak egokitzen duten beste forma bat—.

— Hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista eta inklusiboa egiteko konpromisoa, pertsonak edo pertsona-taldeak bidezko modu batean irudikatzeke, generoaren edo egiturazko beste edozein desberdintasun-iturriren araberako rol eta estereotipoak indartu gabe.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko apirilaren 3an

Administrazio Zerbitzuko burua

JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ


I. ERANSKINA: LAGUNTZA-ESKABIDEA ETA ZINPEKO AITORPENA

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/17/51/91751.pdf>.

II. ERANSKINA: ALDE ZAHARRA, KOROATZEA, ANGLOA, PILAR, ZABALGUNEA, LOVAINA, ZARAMAGA ETA JUDIMENDI

Auzo hauetan barne hartutako kaleen plano orientatzaileak: Alde Zaharra, Koroatzea, Angloa, Pilar, Zabalgunea, Lovaina, Zaramaga eta Judimendi.

Helbide honetan kontsulta daitezke zehatz aipatutako auzoetako kaleak eta zenbakiak: <http://www.vitoria-gasteiz.org/wd004/docs/es/tramos.xls>.



III. ERANSKINA: AZALPEN MEMORIA

– Proiektuaren memoria kualitatiboa.

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/17/52/91752.pdf>.

– Proiektuaren memoria kuantitatiboa.

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/17/53/91753.pdf>.

– Justifikazioko kontu arruntaren eranskina.

<https://www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak>.